

FUNDACIÓN BANCARIA VITAL - VITAL BANKU FUNDAZIOAREN

ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

AZALPENA/HITZAURREA .....	3
I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK .....	4
1. artikulua.- IZENA ETA IZAERA .....	4
2. artikulua.- ARAUBIDE JURIDIKOA .....	4
3. artikulua.- NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA .....	4
4. artikulua.- IRAUPENA .....	5
5. artikulua.- HELBIDEA .....	5
6. artikulua.- LURRALDE EREMUA .....	5
7. artikulua.- JARDUERA PRINTZIPIOAK .....	5
8. artikulua.- HELBURUAK .....	6
9. artikulua.- JARDUERAK .....	6
10. artikulua.- ONURADUNAK .....	7
II. TITULUA.- FUNDAZIOAREN AGINTEA .....	7
I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK .....	7
11. artikulua.- BANKU FUNDAZIOAREN AGINTE ORGANOA .....	7
12. artikulua.- AGINTE ORGANOEEN FUNTZIONAMENDUA .....	8
13. artikulua.- ESTATUTUAK ONARTZEA .....	8
14. artikulua.- FUNDAZIOEN ERREGISTROA .....	8
II. KAPITULUA.- PATRONATUAZ.....	8
1. ATALA.- IZAERA, EGINKIZUNAK ETA BALDINTZAK .....	8
15. artikulua.- PATRONATUAZ .....	8
16. artikulua.- PATRONATUAREN EGINKIZUNAK .....	9
17. artikulua.- KARGUEN IZAERA .....	11
18. artikulua.- KIDEEN BALDINTZAK ETA BATERAEZINTASUNAK .....	12
19. artikulua.- PATRONATUAREN BETEBEHARRAK .....	13
2. ATALA.- OSAERA, IZENDAPENA ETA KARGU UZTEA .....	13
20. artikulua.- OSAERA .....	13
21. artikulua.- PATRONATUKO KIDEEN ONARPENA ETA UKO EGITEA .....	14
22. artikulua.- AGINTALDIAREN IRAUPENA, BERRAUTAPENA ETA BAKANTEA BETETZEA .....	15
23. artikulua.- IZENDAPENAK BERRIZTATZEKO PROZEDURA .....	15
24. artikulua.- BALDINTZAK EGIAZTATZEA .....	16
25. artikulua.- ERAKUNDE SORTZAILEEN ORDEZKARIEN IZENDAPENA .....	17
26. artikulua.- 20.2 ARTIKULUKO B), C) ETA D) TALDEETAKO PATRONATU KIDEEN IZENDAPENA .....	17
27. artikulua.- KARGU UZTEA .....	17
3. ATALA.- JARDUERA ARAUBIDEA .....	18
28. artikulua.- PATRONATUAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA .....	18
29. artikulua.- ERATZEA ETA AKORDIOAK HARTZEA .....	18
30. artikulua.- AKTA LIBURUA .....	19
III. KAPITULUA.- BATZORDE ESKUORDETUEZ .....	20

31. artikulua.- BATZORDE IRAUNKORRA .....	20
32. artikulua.- AUDITORIA BATZORDEA .....	20
33. artikulua.- IZENDAPEN ETA ORDAINSARI BATZORDEA .....	21
34. artikulua.- INBERTSIO BATZORDEA .....	21
IV. KAPITULUA.- PATRONATUAREN ETA FUNDAZIOAREN PRESIDENTETZA. PATRONATUAREN PRESIDENTEORDETZA .....	21
35. artikulua.- IZENDAPENA ETA KARGU UZTEA .....	21
36. artikulua.- PATRONATUAREN PRESIDENTETZA ETA PRESIDENTEORDETZA	21
37. artikulua.- FUNDAZIOAREN PRESIDENTEA.....	22
V. KAPITULUA.- VITAL FUNDAZIOEN ZUZENDARI EXEKUTIBOA, ZUZENDARI NAGUSIA ETA IDAZKARIA .....	24
38. artikulua.- VITAL FUNDAZIOEN ZUZENDARI EXEKUTIBOA ETA ZUZENDARI NAGUSIA .....	24
39. artikulua.- IDAZKARIA .....	24
III. TITULUA.- ARAUBIDE EKONOMIKOA .....	25
40. artikulua.- FUNDAZIOAREN ONDAREA .....	25
41. artikulua.- FINANTZAKETA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK ETA MERKANTILAK .....	25
42. artikulua.- DOHAINIK ESKURATUTAKO ONDASUNAK .....	26
43. artikulua.- FUNDAZIOAREN BALIABIDEEN EZARPENA .....	26
44. artikulua.- FUNDAZIOAREN ONDAREAREN ZAINZA .....	26
IV. TITULUA.- KONTABILITATEA, BALANTZEA ETA EMAITZAK .....	27
45. artikulua.- EKITALDI EKONOMIKOA .....	27
46. artikulua.- KONTABILITATE ARAUBIDEA .....	27
V. TITULUA.- DERRIGORREZKO DOKUMENTUAK .....	28
47. artikulua.- JARDUERA PLANA .....	28
48. artikulua.- ERAKUNDE GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA .....	28
49. artikulua.- DERRIGORREZKO LIBURUAK .....	28
VI. TITULUA.- ESTATUTUAK ALDATZEA .....	28
50. artikulua.- ESTATUTUAK ALDATZEA .....	28
VII. TITULUA.- BAT EGITEA, IRAUNGITZEA ETA LIKIDAZIOA .....	29
51. artikulua.- BAT EGITEA .....	29
52. artikulua.- IRAUNGITZEA: ARRAZOIAK ETA PROZEDURA .....	29
53. artikulua.- LIKIDAZIOA .....	30
VIII. TITULUA.- FUNDAZIOEN BABESLETZA ETA ERREGISTROA .....	31
54. artikulua.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREGISTROA 31	
55. artikulua.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN BABESLETZA	31
56. artikulua.- ZEHAPEN ARAUBIDEA .....	31

AZALPENA / HITZAURREA

“Fundación Bancaria Caja de Ahorros de Vitoria y Álava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa”, gaur egun “Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioa” deritzona (“Banku Fundazioa”), Caja de Ahorros de Vitoria y Álava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa (“Caja Vital Kutxa”) banku fundazio bilakatzearen emaitza da, Vitoria-Gasteizko Alfredo Pérez Ávila jaun Notarioak 2014ko uztailaren 3an baimendutako eskritura bidez gauzatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua, F-371 erregistro zenbakipean, Euskadiko Administrazio Publiko eta Justizia sailburuaren 2014ko uztailaren 29ko Aginduaren kariaz.

Banku fundazio bilakatzeko aipatutako eskrituran aurreikusitakoaren arabera, Banku Fundazioaren ondarea dira balorazio ekonomikoa izan dezaketen “Caja Vital Kutxaren” ondasun eta eskubide guztiak, hau da, banku fundazio izaera juridikoa hartu zuen unean zituen ondasun eta eskubide guztiak, baita gerora eskura ditzakeenak ere.

Era berean, “Caja Vital Kutxa” bi erakunde hauen bat egitearen emaitza da: bateko, “Gasteizko Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea” -Vitoria-Gasteizko Udalak 1850. urtean sortua-, eta besteko, “Caja Provincial de Ahorros de Álava”- Arabako Foru Aldundiak 1918. urtean sortua.

Aipatutako bate egite hori 1990eko ekainaren 18an gauzatu zen, Vitoria-Gasteizko Manuel María Rueda Lamana jaun Notarioak baimendutako eskritura bidez.

Bat egite prozesuaren ondorioz, bat egindako Aurrezki Kutxa bien ondare osoa, dena batera, orotan, eta orotarako joan zen “Caja Vital Kutxara”.

Banku Fundazioa aipatutako Aurrezki Kutxa bien oinordeko unibertsala denez, hala Arabako Foru Aldundiak nola Vitoria-Gasteizko Udalak, legezko ondorio guztietarako, haren erakunde sortzaile izaera izango dute, eta biei dagokie izaera berarekin, sortzaile izateagatik dagozkiekeen eskubide eta betebeharrak guztiak egikaritzea.

**“FUNDACIÓN BANCARIA VITAL - VITAL BANKU FUNDAZIOAREN” ESTATUTUAK**

I. TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- IZENA ETA IZAERA.

“Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioa” deritzo fundazioak (aurrerantzean “Banku Fundazioa”), eta irabazi asmorik gabeko Banku Fundazioa da, izaera pribatukoa eta gizarte ekintzakoa. Bere ondarea Estatutu hauetan zehaztuko diren interes orokorreko helburuak gauzatzeari lotuta dago era iraunkorren.

Bere jardueren garapenean, Banku Fundazioak “Vital Kutxa Banku Fundazioa” izena ere erabil dezake.

2. artikulua.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

1. Banku Fundazioa hainbat araubidek eraenduko dute: Estatu hauek; aurrezki kutxen eta banku-fundazioen gaineko abenduaren 27ko 26/2013 Legeak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak; ekainaren 19ko 100/2007 eta 101/2007 Dekretuek, zeintzuen bidez onesten baitira, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Arautegia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Arautegia, eta halaber, hari aplikatu dakioken indarreko beste edozein lege-araudik.

2. Banku Fundazioaren estatutuak euskaraz eta gazteleraz idatzi dira.

3. artikulua.- NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA.

1. Banku Fundazioak gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa ditu, eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava - Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxaren (aurrerantzean, “Caja Vital Kutxa”), nortasun juridikoa atxikitzen du, horren eraldaketatik baitator, eta ez ditu Estatutu hauek eta ezar dakizkioken indarrean dauden lege-xedapenek ezartzen dituzten mugak baino.

2. Ondorioz, eta babesletzari egin behar zaizkion bidezko jakinarazpenen kalterik gabe, Banku Fundazioak jarduteko gaitasun osoa izango du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Banku Fundazioak honako hauek egin ditzake:

a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak garatu, bere helburuak lortzeko edo baliabidek abildu helburu horiei jarraiki.

b) Mota guztietako ondasunak eta eskubideak erosi eta besterendu, edozein titulurengatik, eta mota guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak burutu.

c) Mota guztietako egintzak egikaritu, bere Estatutuen eta dagozkion Legeen arabera.

4. Ongintzazko fundazio izaera duenez, legezko xedapenek onartzen dizkieten eskubide guztiak izango ditu: funtsezkoak, prozesalak, fiskalak nahiz beste izaera batekoak, doako justizia barne

4. artikulua.- IRAUPENA.

Banku Fundazioaren iraupena mugagabea da eta, bere jarduna bukatutzat ematera edo bere nortasuna iraungitzera, edo Estatutuetan edo aplikatu dakioken araudian berariaz aurreikusitako balizkoetan bakarrik egin dezake.

#### 5. artikulua.- HELBIDEA.

Banku Fundazioak Vitoria-Gasteizen izango du bere helbidea, Aiztogile kalea 24 (Kordoi Etxea).

Patronatuak erabakiz gero, helbidea Arabako Lurralde Historikoko beste edozein lekutara eraman daiteke, aplikatu daitekeen araudian ezarritako baldintzak beteta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari ere jakinaraziko zaio, behar bezala inskribatuta ager dadin.

#### 6. artikulua.- LURRALDE EREMUA.

Banku Fundazioak batez ere Arabako Lurralde Historikoan garatuko ditu bere jarduerak, nahiz eta, Patronatuak hala erabakitzen badu, Euskadiko Autonomia Erkidegoko gainerako eremuan eta, kasua bada, beste lurralde batzuetan jardun dezakeen.

#### 7. artikulua.- JARDUERA PRINTZIPIOAK.

Banku Fundazioak honako printzipio hauei jarraituko die bere jardueran:

a) Publizitatea eta gardentasuna, bere helburuei eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emanez, herritarrek, oro har, eta bere onuradun izan daitezkeenek ezagutu ditzaten.

b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza pertsona onuradunak aukeratzean, baita euren jarduerenak eta prestazioenak ere.

c) Jarduera zuzentarauen sustapena, portaera kodeak eta funtzionamendu praktika onak sortuz.

d) Patronatuko kideei zerbitzu-espirtua sustatzea, baita Banku Fundazioen interesei lehentasuna ematea ere, norberaren edo interes partikularren aurretik.

e) Lankidetzeta leiala eta iraunkorra Euskadiko Fundazioen Babesletzarekin.

f) Banku Fundazioaren ondarea eta errentak sorrerako helburuetarako erabiltzeko betebeharra egiatan betetzen dela defendatzea eta babestea, Estatutu hauetan eta indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

g) Genero berdintasuna.

#### 8. artikulua.- HELBURUAK.

1. Banku Fundazioak lehentasunezko arreta emango dio Arabako Lurralde Historikoko gizarte, kultura eta ekonomiaren sustapenari lagun diezaiokienari, eta Banku Fundazioaren organo eskudunek enkargatzen dizkioten gizarte, ongintza, laguntza, irakaskuntza, kultura edo kirol, osasun eta gizarte laguntza edo ikerketa ekintzen sustapena, kudeaketa, garapena eta administrazioa du helburu, oro har, eta

enuntziatu gisa. Horretarako, behar diren zuzkidurak edo fondo esleipenak hornituko ditu, eta helburu horiei jarraiki enkargatzen zaion edozein jarduera izango du berea, zeharka bada ere.

2. Irabaziek ahalbidetzen duten neurrian, eta borondatezko erreserbetarako zuzkidurei erantzun ostean, baleude, eta bere jardueraren ezinbesteko erakusgarri, Banku Fundazioak gizarte, ongintza, laguntza, irakaskuntza, kultura edo kirol, osasun eta gizarte laguntza, ikerketa ekintzak sortu, arautu eta mantenduko ditu, edo aipatutako horiek ez bezalako beste batzuk, Patronatuak halaxe zehaztuta eta antzeko helburua edo izaera badute, interes orokorraren ikuspuntutik.

3. Banku Fundazioak bultzatu eta garatzen dituen proiektuak eta jarduerak, orientabide gisa, eta era eskusiboan edo derrigorrez, honako eremu hauetan ardaztuko dira: gizarte laguntza eta inklusioa, osasuna, aniztasun funtzionalaren eta desgaitasunaren arreta, hezkuntza, euskararen eta hizkuntza elkarbizitzaren garapena, kultura, kirolaren eta bere balioen sustapena, lankidetzak, ikerketa zientifikoa, berrikuntza eta garapen teknologikoa, ingurumena eta jasangarritasuna, prestakuntza eta enpleguaren sustapena eta, bereziki, gazteei eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboek laneratzeko laguntzea eta, oro har, gizarte baloreen sustapena eta garapen pertsonala: elkartasuna, tolerantzia, boluntarioria, kolektiboaren ikuspegia eta balioa ematea, singularitatearekiko errespetuarekin batera.

Banku Fundazioaren jardueraren funtsezko adierazpen hori bere ongintza, kultura, **gizarte eta laguntza ekintza izango da (aurrerantzean, "Gizarte Ekintza")**.

4. Banku Fundazioak askatasun osoa izango du Gizarte Ekintza kudeatzeko, bere Patronatuaren iritziz lehentasuna duten helburu zehatzen arabera. Estatutu hauetatik eta aplikagarria den arauditik eratortzen diren mugak baino ez dituzte izango, eta are gehiago, egun dauden edo Banku Fundazioak berak sor ditzakeen beste erakunde edo organizazioen bitartez ere bai.

5. Banku Fundazioak publizitate nahikoa emango die bere helburu eta jarduerari, gizarteak eta bere onuradunak eta interesa izan dezaketenak ezagutu ditzaten.

#### 9. artikulua.- JARDUERAK.

1. Banku Fundazioak gizarte helburua du eta bere jarduera nagusia bere Gizarte Ekintzaren arretara eta garapenera bideratuko du eta bere ondarearen eta **"Caja Vital Kutxa" bere finantza-jarduera transferitu zion Banku Erakundearen duen partaidetzaren kudeaketa egokira (aurrerantzean, "Kutxabank")**.

2. Banku Fundazioa, bere helburuak betetzea edo jarduerak garatzea xede, berak komenigarri deritzen elkarteetan edota erakundeetan integratu daiteke, baita hitzarmenetan edo beste edozein lankidetzak motatan parte hartu ere, antzeko helburuak lortu nahi dituzten edo izaera bereko eragiketak garatzen dituzten beste fundazio, instituzio, sozietate nahiz elkarte batzuekin.

3. Banku Fundazioak merkataritza jarduerak gara ditzake, eta hori zuzenean nahiz zeharka egin dezake, sorrerako helburuekin zerikusia duten edo horien osagarriak edo lagungarriak diren jarduerak ekonomikoak eginez, bai merkataritza sozietateetan

parte hartuz, bai ordenamendu juridikoak onartzen dituen bestelakoetan parte hartuz ere.

10. artikulua.- ONURADUNAK.

Banku Fundazioak interes orokorrak zerbitzatu behar ditu eta bere fundazio-jarduerak pertsona fisikoen edo juridikoen kolektibo generikoen onurarako izan behar du. Edozein kasutan, Patronatuari dagokio onuradunak zehaztea, eta inpartzialtasun eta diskriminaziorik eza irizpideei jarraiki jardungo du, baita Estatutu hauetako 7. artikuluan zehaztutako jarduera printzipioei jarraiki ere.

Aurrekoaren kalterik gabe, onuradunak mugatzea beharrezkoa izan dadinean, Banku Fundazioak deialdi bakoitzerako eskakizun espezifikoak erabaki ditzake, jarduera-irizpideak, eskakizunak eta balioetsi beharreko merituak.

II. TITULUA  
FUNDAZIOAREN AGINTEA

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

11. artikulua.- BANKU FUNDAZIOAREN AGINTE ORGANOK

Banku Fundazioaren aginte organoak dira, Legean eta Estatutu hauetan xedatutako terminoen arabera:

- a) Patronatua.
- b) Batzorde Iraunkorra, Auditoria Batzordea, Izendapen eta Ordainsari Batzordea eta Inbertsioen Batzordea, baita Patronatuak, edozein izenez, eratu dezakeen beste edozein batzorde eskuordetu ere.
- c) Vital Fundazioen zuzendari exekutiboa.
- d) Zuzendari nagusia.



12. artikulua.- AGINTE ORGANOEEN FUNTZIONAMENDUA.

1. Aginte-organo guztiak Banku Fundazioaren interesen onerako baino ez dira arituko eta bere gizarte-eginkizuna betetzeko, lehentasuna horiei emanez, eragin diezaiekeen beste edozeinen aurretik.

2. Etikarekiko errespetuak bultzatuko du Banku Fundazioaren aginte-organoen jarduna. Portaera etikoari datzekio arduraz jokatzea, on ustez aritzea eta karguan leialtasunez lan egitea.

13. artikulua.- ESTATUTUAK ONARTZEA.

Aginte-organoren batean parte hartzeak, zeinahi ere den, Estatutu hauek eta beroriek osatzen dituzten akordio eta xedapen guztiak onartzea dakar, baita horiek bete beharra ere.

14. artikulua.- FUNDAZIOEN ERREGISTROA.

Hala aginte-gobernuetako edozein kargu bereganatu behar duten pertsonen izendapenak, nola, berritzeak eta kargu-uzteak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira, aplikatu dakizkiekeen kasuan kasuko xedapenen arabera.

Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko dio bere kideen izendapena eta kargu-uztea, akordio horiek hartu direnetik edo uko egite datatik hiru hilabeteko epean, eta inskripzio horrek aitortza ondorioak izango ditu.

Era berean, eskuordetze eta ahalordetze orokorrak, baita horien berritzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira, eta inskripzio horrek aitortza ondorioak izango ditu.

II. KAPITULUA  
PATRONATUAZ

1. ATALA  
IZAERA, EGINKIZUNAK ETA BALDINTZAK

15. artikulua.- PATRONATUAZ.

1. Patronatua da Banku Fundazioaren aginte, administrazio eta ordezkari organo gorena. Patronatuari dagokio sorrera-helburuak betetzea, eta arduraz administratzea Banku Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, horien errendimendua eta erabilgarritasunari eutsiz.

2. Patronatua subiranoa da bere eginkizuna betetzean, Babesletzak aplikagarria den araudiak ematen dizkion ahalmenak egikaritzearen kalterik gabe, eta fundazioaren borondatea ordezkatzan du eta sorrerako helburuak gauzatu eta betetzeko beharrezkoak diren ahalmen eta eskumen guztiak egikaritutako ditu, Estatutu hauetan eta ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

Espainiako Bankuaren kontrola, gainbegiratzea eta txostenaren arduraduna ere izango da Patronatua, baita Erakunde Gobernuaren Urteko Txostena egin, onartu, igorri, argitaratu eta horren edukiaren arduraduna ere.

3. Banku Fundazioaren helburuak hobeto garatu daitezzen, Patronatuak egoki irizten dien beste batzorde eskuordetu edo betearazle eratu ditzake, eta kasu bakoitzean erabakiko du zein ahalmen ematen dien. Era berean, askatasunez aukeratzan duen edo dituen pertsona edo pertsonen aldeko ahalordeak eman ditzake eta kasu bakoitzean erabakitzen dituen ahalmenak izango dituzte.

#### 16. artikulua.- PATRONATUAREN EGINKIZUNAK.

1. Patronatua da sorrerako helburuak eraginkortasunez betetzeko Zuzenbidean beharrezko diren ahalmen eta eskubide guztien titularra.

2. Bere ahalmenak baliatzen dituelarik, Estatutu hauek eta aplikatu dakiokkeen araudian ezarrita dagoenak eraenduko dute Patronatua, nolahi ere, eta batzuk aipatzearen, hurrengo eginkizun hauek dagozkie, besteak beste:

1.- Estatutuak zorrotz betetzen direla zaintzea. Estatutuak interpretatzea izaera lotesleaz eta, kasua bada, haietan esan gabeak betetzea edo aldatzea.

2.- Banku Fundazioaren helbidea aldatzea.

3.- Egoki irizten dien beste batzorde eskuordetu edo betearazle sortu edo eratzea, eta kasu bakoitzean erabakitzea zein ahalmen ematen dien, eta batzorde horien funtzionamendu barne erregimeneko erregelamenduak onartzea eta, kasua bada, aldatzea eta batzorde horiek osatu behar dituzten kideak izendatzea, kontuan izanda haien osaerari buruzko estatutu-arauak edo erregelamendukoak.

4.- Banku Fundazioaren eta bere ondasun eta eskubideen defentsa eta iraupena zaintzea, une eta inguruabar orotan horretarako beharrezko edo egoki diren ekintza guztiak burutuz.

5.- Banku Fundazioaren ondarea eta eskubide erabiltzea, administratzea, gordetzea eta defendatzea, baita funts propioen inbertsioa zehaztea, gauzatzea eta zaintzea ere.

6.- Banku Fundazioaren jarduerak arautzea eta adostea, eta bere eskuetan dagoen kasuan, bere baldintzak zehaztea, baita egoki irizten dien erabaki guztiak onartzea eta Banku Fundazioaren jardueran sor litezkeen kontuak ebaztea ere.

7.- Edozein erabaki hartzea eta Banku Fundazioaren eragiketekin zerikusia duten edozein motatako egintzak eta kontratuak baimentzea eta betearaztea, indarrean dauden legezko xedapenei atxikita, eta, behar izatera, egoki deritzen bermeak konprometitzea, edozein izanda ere berorien izaera.

8.- Edozein motatako ondasun higiezinak nahiz edozein izaerako eskubide errealak erostea, edukitzea, besterentzea, hipotekatzea eta kargatzea eta, ondasun eta eskubide horiei dagokienez, edozein egintza edo kontratu egitea: zibilak, merkataritzakoak eta administratiboak, inolako salbuespenik gabe, baita hipotekak eta gainerako eskubide errealak eratzea, aldatzea eta kitatzea ere, bai halaber, Banku Fundazioaren aktiboak edo/eta pasiboak lagatzea, errentan hartzea, salerostea eta eskualdatzea, hori guztia aplikatu daitezkeen legezko mugapenekin.

9.- Titulu, balore, akzio nahiz obligazio mota oro erostea, besterentzea, trukatzea, eskualdatzea, kargatzea, harpidetzea eta eskaintzea, nahiz baloreak saltzeko edo erosteko eskaintza publikoak egitea, baita edozein motatako sozietate edo enpresatako partaidetzen kasuan ere.

10.- Higigarri eta higiezinaren gaineko gozamenak, erroldak, zentsuak, zortasun aktiboak eta pasiboak eta izaera errealeko beste edozein eskubide eratzea, aldatzea eta iraungitzea Banku Fundazioarentzat onuragarrienak deritzen baldintzetan, aplikatu daitezkeen indarreko araudiaren arabera.

11.- Jaraunspenak, dohaintzak eta legatuak onartzea, jaraunspenetan inbentario-onurari bildu dakioketarik.

12.- Kontuak, Memoria, Urteko Balantzea, Eraitzen Kontua eta urteko aurrekontuak aztertzea eta onestea, ondorio haietarako egoki diren ebazpenak hartuz.

13.- Sozietateak, elkarteak, organismoak eta edozein izaera juridikoko beste erakunde batzuk eratzea eta beraietan parte hartzea, beharrezko izango litzaizkiokeen kapitalak ipiniz.

14.- Banku Fundazioaren helburuak bete daitezen, berorren finantza-administrazioaren eta finantza-kudeaketaren ardura eman zaion organoa denez gero, Patronatua bera izango da arlo horren gaineko akordioak onesteko eskumena duena.

15.- Nahikoa ahalorde ematea egoki deritzen pertsonen alde, komenigarri deritzen ahalmenekin, salbu eta legez haiek eskuordetu ezinak izan, eta ahalmenak ezeztatzea.

16.- Banku Fundazioaren iraungipena eta likidazioa onestea, bai halaber, beste erakunde batzuekin bat egitea, nahiz egiturazko beste aldaketa bat egitea.

17.- Kanpo-auditoriaren izendapena onestea.

18.- Fundazioak Kutxabanken duen parte hartzea kudeatzea. Ondorio horietarako, Fundazioari, haren akzioduna den heinean, dagozkion eskubideak eta ahalmenak egikarrituko ditu eta izendatzea dagozkion kontseilariak proposatuko ditu, eta kasua bada, dagozkion argibideak emango dizkio Fundazioaren izenean eskubide horiek egikarrituko dituen pertsonari eta, era berean, bere interesetarako egoki deritzon jarraipen-informazioa eskatuko dio.

19.- Estatutuetatik, baliozki hartutako akordioetatik edo indarrean dauden arauetatik sortutako gainerakoak.

3. Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ditzake bere kide batengan edo gehiagorengan, edo Patronatuko kide batzuen alde, batzorde betearazle edo eskuordetu bat edo batzuk eratuta.

Ezin eskuordetu daiteke, ezerein kasutan, jarraian zehaztuko diren honako gai hauei buruzko akordioak hartzea:

a) Urteko Kontuen onarpena.

b) Jarduera Planaren onarpena.

c) Estatutuen aldaketa.

d) Fundazioaren bate egitea, zatitzea, eraldatzea, iraungitzea eta likidatzea.

e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, salbu eta egintza horiek zuzenean helburuei lotuak izan.

f) Partaidetza edo partaidetzen salmenta egintzak beste pertsona juridikoetan, horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20tik gorakoa bada.

g) Fundazioaren aktiboaren % 20tik gorakoak diren ondasunen edo eskubideen gaineko erabilera dakarren edozein egintza.

h) Zuzkidura handitzeko edo murrizteko.

i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat egitea, zatitzea edo lagapen globala.

j) Sozietate edo beste pertsona juridiko batzuen iraungitze egintzak.

k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta egintza hori errepikaria izan eta Babesletzak alde aurretik baimendua izan baldintza berberetarako.

l) Erantzukizunpeko adierazpenak hartzea eta gauzatzea. .

17. artikulua.- KARGUEN IZAERA.

1. Patronatuko kideek doan jardungo dute euren karguan, bakoitzak bere eginkizunean jardutean karguak eragiten dizkien gastuak, behar bezala egiaztatu ondoren, ordainduak izan dakizkien eskubidearen kalterik gabe.

2. Goiko atalean ezarritakoagatik ere, Patronatuak ordainsaria ezarri dezake Patronatuko kideentzat, horiek Banku Fundazioari ematen dizkioten zerbitzuak Patronatuko kide izateagatik dagozkien eginkizunetan jarduteak dakartzanez bestelakoak direnean, eta alde zurretik Babesletzak baimenduak izan beharko dute hiru hilabeteko epealdian.

3. Era berean, Patronatuak zenbateko zehatz bat ezarri dezake asistentzia-sari gisa, karguaren zereginak betetzeak eragindako gastuak konpentsatzeko eta, kasu horretan, Patronatuko kideak bere kargua betetzeak eragin dizkion gastuen itzulketaren edo asistentzia-sariaren artean aukeratu beharko du.

18. artikulua.- KIDEEN BALDINTZAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

1. Patronatuko kideek bete behar dituzten eskakizunak dira merkataritza-zintzotasuna eta lanbide-zintzotasuna, arauak diotenaren arabera, baita euren eginkizunak betetzeko beharrezko ezagutza eta eskarmentua izan ere.

Estatutu hauetako 20.d) artikuluan aurreikusitako Patronatuko kideek honako eskakizun hauek bete behar dituzte: zintzotasuna, ezagutza, eskarmentua eta kudeaketa ona, ondorio horietarako aplikatu daitekeen legeriak bankuetako administrazio-organoetako kideei eta kargu baliokideei galdatu bezala.

2. Patronatuko kideak izan daitezke jarduteko gaitasun osoa duten eta kargu publikoetan jarduteko desgaituak ez dauden pertsona fisikoak.

Patronatuko kideak diren pertsona fisikoek pertsonalki jardun beharko dute kargu horretan, hala ere, Patronatuko beste kide bat izenda dezakete euren izenean eta euren ordezkariak izan dezaten ekintza zehatz batzuetan, eta ordezkariak ordezkariak idatziz eman diezazkiokeen jarraibideak zehatz bete beharko ditu.

3.- Pertsona juridikoak diren Patronatuko kideek pertsona fisikoren bat izendatu beharko dute, ordezkari ditzan. Patronatuan pertsona juridikoen ordezkari direnek era egonkorrean beteko dute eginkizun hori. Pertsona horiek pertsona juridikoan duten karguagatik izendatuak izan badira, kargua galtzeak Patronatuko kide izateari uztea ere ekarriko du.

Pertsona juridikoak diren Patronatuko kideak ordezkari ditzuten pertsona fisikoek, euren eginkizunak betetzeko beharrezko ezagutza eta eskarmentua izan beharko dute, baita indarrean dagoen legeriak pertsona fisikoak diren Patronatuko kideei eskatzen dituen merkataritza-zintzotasun eta lanbide-zintzotasun

eskakizunak ere, eta bateraezintasun arrazoi berberen mendean egongo dira, baita indarrean dagoen legediak eta Estatutu hauek Patronatuko kideentzat ezartzen dituzten betebeharrak berberei lotuta ere.

4. Ezin daitezke Patronatuko kideak izan:

a) Kargu politiko hautatuak eta alderdi politikoak, enpresa elkarten edo sindikatuen kargu exekutiboak.

b) Goi kargu hauek: Estatuko Administrazio Orokorrekoak, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak eta Toki Administrazioak, baita arlo publikoko, zuzenbide publiko zein pribatuko erakundeetakoak ere, haiei lotuak edo haien menpekoak direnean. Patronatuko kide izateko bateraezintasun horrek goi kargua uzten den egunaren ondorengo bi urtera arte iraungo du.

c) Era berean, Patronatuko kide izatea bateraezina izango da Kutxabanken haien baliokide diren karguetan jardutearekin, haren akzioduna baita Banku Fundazioa, edo haren Banku Taldeak kontrolatzen duen beste erakunde batzuetan.

d) Edo indarreko legeriak ezartzen duen beste edozein bateraezintasun-zioren batean dauden horiek.

#### 19. artikulua.- PATRONATUAREN BETEBEHARRAK.

1. Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

a) Sorrerako helburuak betetzea eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren Estatutuetan xedatutakoaren arabera.

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitatea erabat mantentzea, kudeaketa on baten irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.

c) Lege ordezkari batek izan behar duen prestasunaz zerbitzea karguari.

2. Patronatuko kideek solidarioki erantzungo dute Banku Fundazioaren aurrean, Legearen, Patronatuko Estatutuen edo barne eta portaera araudiaren aurkako egintzen bidez sor litzaketen kalte eta galerengatik, edo kargua betetzeko behar duten prestasunik gabe egindakoengatik. Erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira akordioaren aurkako bozka eman dutenak eta akordio hori hartu denean eta gauzatu denean parte hartu ez dutenak, beti ere horren berri ez zutela probatu ostean, edo ezagutu arren, kaltea ekiditeko beharrezko guztia egin zutela edo, behintzat, berriaz kontra egin ziotela probatu ostean.

## 2. ATALA OSAERA, IZENDAPENA ETA KARGU UZTEA

20. artikulua.- OSAERA.

1. Patronatua hamabost (15) kidek osatuta egongo da.
2. Honako talde hauetako bakoitzetik kide bat izan beharko du, gutxienez, Patronatuak:
  - a) Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaileak Estatutu hauen azalpena edo hitzaurrean definitzen diren bezala

Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaileak Banku Fundazioaren berezko Patronatuko kide izango dira eta, bakoitzari aplikatu dakioken lege-araudiaren arabera, beraiek izendatuko dituzte Artikulu honexetan esleitzen zaizkien ordezkariak. Hori guztia, aipatu erakundeek, egoki deritzenean, euren ordezkariak aldatzeko duten eskubidearen kalterik gabe.

- b) Banku Fundazioaren jardun-eremuko interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten edo arlo horretan errotoak eta aintzatetsiak diren erakundeak.

Patronatuak izendatuko ditu Patronatuko kide diren erakunde ordezkaria edo ordezkariak, eta horiek euren ordezkariak izendatuko dituzte Estatutu hauetako 23. Artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

- c) Pertsona independente eta lanbide-ospe aintzatetsia dutenak Banku Fundazioaren gizarte-helburuak betetzearekin zerikusia duten arloetan, edo Banku Fundazioak, finantzakoez aparte, inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan.

Talde honi dagozkion Patronatuko kideak Patronatuak izendatuko ditu, Estatutu hauetako 23. Artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

- d) Finantza-arloan ezagutza eta esperientzia espezifikoko dituzten pertsonak.

Talde honi dagozkion Patronatuko kideak Patronatuak izendatuko ditu, Estatutu hauetako 23. Artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

3. Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak eta korporazioak ordezkatzeko dituzten Patronatuko kideen kopuruak ezin du guztizkoaren ehuneko 25 baino handiagoa izan.

21. artikulua.- PATRONATUKO KIDEEN ONARPENA ETA UKO EGITEA.

1. Patronatuko kideak izendapena berariaz onartu ostean sartuko dira euren eginkizunak betetzera. Era berean, Patronatuko kideak izan eta Patronatu barruan kargu bat betetzeko izendatuak diren pertsonak jarraian dagoen atalean ezarritako formaren baten bidez onartu beharko dute. Onarpen hori derrigorrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua izan dadin.

2. Patronatuko kide edo karguaren izendapenaren onarpena honako era huetako batera bideratu daiteke:

a) Eskritura publikoan.

b) Dokumentu pribatuan, Notarioak egiaztatutako sinaduraz.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan bertaratuta.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Banku Fundazioaren Patronatuaren aurrean izendapena onartu dela egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztuta, Patronatuko idazkariak luzatua, bere sinadura notarioak egiaztatuta edo Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko pertsona funtzionarioaren aurrean legeztatuta, ondorio horretarako egindako bertaratzeaz.

3. Pertsona juridikoek Patronatuko kide izateko euren izendapena, aurreko atalean aurreikusitako bitartekoen bidez onartzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Patronatuan ordezkatzeko duen pertsona fisikoaren izendapenaren akreditazioa aurkeztuta ere onartu ahal izango dute. Pertsona juridikoaren onarpenak eragin juridikoak abiaraziko ditu izendapen horren datatik aurrera.

4. Patronatuko kide izateari uko egitea, baita Patronatu barruan duten karguari ere, aginte-organo horri jakinarazi beharko zaio eta Artikulu honen 2. atalean onarpenerako aurreikusi den eraren batean bideratu. Uko egite hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinarazi behar zaio uko egite horren datatik hiru hilabeteko epean, eta inskripzioak aitortpen eragina izango du.

Epealdi hori igaro eta erregistro-inskripzioa eskatu ez bada, horrek eratze-izaera hartuko du, eta ondorioz, akordioek Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu ostean baino ez dute izango baliorik, formalki hartu ziren datako atzera-eraginaz.

## 22. artikulua.- AGINTALDIAREN IRAUPENA, BERRAUTAPENA ETA BAKANTEA BETETZEA.

1. Patronatuko kide karguaren iraupena bost (5) urtekoa da. Ondorio horretarako, bost (5) urteko epea betetzen den urtearen barruan, aurreko ekitaldiko kontuak onartuko dituen Patronatuaren bilera egiten den egunean epea bete dela ulertuko da.

2. Patronatuko kideek ezin dezakete kargua bete bi (2) agintaldi baino gehiago jarraian eta, edozein kasutan, hamar (10) urte baino luzeagoa den epealdian, edozein dela ere duten ordezkaritza.



3. Araututako mugatze horrek ez die eragiten Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaileei, Banku Fundazioko berezko Patronatuko kideztat jotzen baitira, agintaldi bakoitzaren amaieran egin behar duten ordezkari izendapen berriaren kalterik gabe.

3. Bost (5) urteko epealdia indarrean dagoen bitartean sor litezkeen bakanteak hilabete bateko (1) gehieneko epealdian bete beharko dira, 23. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako prozedurari jarraiki, eta kargua utzi duenari agintaldia bukatzeko falta zitzaion epealdirako.

### 23. artikulua.- IZENDAPENAK BERRIZTATZEKO PROZEDURA.

1. Patronatuko kideen agintaldia bukatzeko data iritsi baino lau hilabete lehenago, Patronatuko presidentek berriztatze prozedura abiaraztea erabakiko du, eta jarraian datozen ataletan zehaztutakoaren arabera egingo da:

a) Presidenteak Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaileei eskatuko die, gehienez jota hilabete bateko (1) epean, izenda ditzatela Patronatuan ordezkaturiko dituzten pertsonak.

Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaileek izendatutako ordezkari kopurua bakoitia benez, erakunde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du eta hirugarrena txandakako eran izendatuko da, Caja Vital Kutxaren Erakunde Sortzaile bien artean.

b) Patronatuak, bere presidentearen bitartez, eta kideen gehiengoak alde aurretik hartutako akordioaz, Banku Fundazioaren jardura eremuan edo egoki deritzon bertan errotze aitortuta duten interes kolektiboen erakunde ordezkariari eskatuko die, eskatu denetik gehienez jota hilabete bateko (1) epean, Banku Fundazioaren Patronaturako hautagaia edo hautagaiak proposa ditzatela, Estatutu hauetako 20.2 artikuluko b) talderako.

c) Patronatuak, bere presidentearen bitartez, eta kideen gehiengoak alde aurretik hartutako akordioaz, gehienez jota hilabete bateko (1) epean, Patronatuko gainerako kideak izendatzeko proposamenak luzatuko ditu, Estatutu hauetako 20.2 artikuluko b) eta c) taldeetarako.

2. Horretarako gaitu den epealdia igarota, izendatutako erakundeek eta instituzioek Patronatuko kideen izendapenerako proposamenak egingo ez balituzte, edo izendapen horiek Patronatuko postu guztiak betetzeko nahikoa ez balira, Patronatua bera ahaldunduta egongo da izendapen horiek zuzenean egiteko, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak alde aurretik egiaztatuta proposatu diren Patronatu kideek baldintzak betetzen dituztela.

### 24. artikulua.- BALDINTZAK EGIAZTATZEA.

1. Izendapen eta Ordainsari Batzordeak izendapenak eta izendapen-proposamenak aztertuko ditu, gehienez ere hamar (10) egutegi-eguneko epearen barruan egiaztatzeko izendatutako pertsonak betetzen dituztela legezko eta estatutuzko eskakizunak, haiek izendatuak izan ahal izateko galdatzen direnak.

2. Izendapen eta Ordainsari Batzordeko kide izan eta kargua utzi duten Patronatuko kideak, beste agintaldi baterako proposatuak badira, ez dute parte hartuko euren baldintzak egiaztatzeko prozesuan.

3. Erakunde Sortzaileek aukeratutako pertsona batek edo gehiagok lege eta estatutu eskakizun horiek bete ezean, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak Patronatuko presidenteari jakinaraziko dio, dagokion erakundeari eskatu diezaion beste izendapen bat egin dezala gehienez ere hamar (10) egutegi-eguneko epearen barruan, gero, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak jasotakoan, artikulua honetan aurreikusitako tramiteak betetzen joan dadin.

4. Aurreko paragrafoan ezarritako izapidea amaitu ostean, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak erabakiko balu Estatutu hauetako 20.2 artikuluko b), c) eta d) taldeetarako izendapen proposamenetan dagoen edo dauden pertsona edo pertsona batzuek ez dituztela betetzen Fundazioaren Patronatuko kide izateko exijitzen diren lege eta/edo estatutu baldintzak, Patronatuari jakinaraziko dio, Patronatuak zerrenda berak hautatutako beste pertsona batzuekin osa dezan, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak aldeztu aurretik egiaztatuta proposatu diren Patronatu kideek baldintzak betetzen dituztela.

#### 25. artikulua.- ERAKUNDE SORTZAILEEN ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

1. Behin egiaztatutakoan Erakunde Sortzaileek hautatutako pertsonak izendapenerako ezarritako eskakizunak betetzen dituztela, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak Patronatuko presidenteari jakinaraziko dio, gero horrek beste tramiterik gabe formalizatu dezan Banku Fundazioko Patronatuko kide izendatutako pertsonen izendapena.

2. Berezko Patronatuko kideen ordezkarien izendapena beraien izendapenaren ziurtagiriz egiaztatuko da, eta ziurtagiri hori egingo du, ziurtatzeko ahalmena duen organoak edo agintariak.

#### 26. artikulua.- 20.2 ARTIKULUKO B), C) ETA D) TALDEETAKO PATRONATU KIDEEEN IZENDAPENA.

1. 20.2 artikuluko b), c) eta d) taldeetako Patronatuko kideen izendapen proposamenek Patronatu kide izateko exijitzen diren lege eta estatutu baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ostean, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak Patronatuko kideak izendatzeko edo, kasua bada, berritzeko proposamen bat prestatuko du, eta Patronatuko presidenteari bidaliko dio, Patronatuaren onarpena eska dezan.

2. 20.2 artikuluko b), c) eta d) taldeetako Patronatuko kide berrien izendapen akordioa bertaratu diren edo ordezkatura dauden Patronatuko kideen gehiengo sinplearen aldeko botoaz hartu behar du Patronatuak, eta edozein kasutan, hiru taldeetako gutxienez ordezkari bana izendatzeko derrigortasuna errespetatu behar du.

3. Agintaldia bukatuta beste agintaldi baterako proposatutako Patronatuko kideek ez dute parte hartu behar norbera karguan berritzeko bozketa-prozesuan.

#### 27. artikulua.- KARGU UZTEA.

1. Patronatuko kideek honako arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

a) Agintaldi-epea betetzea, salbu eta karguan jarraitu.

b) Dokumentu publikoan, Notarioak legezkatutako sinadura duen dokumentu pribatuan, Fundazioen Erregistro aurrean edo Patronatu aurrean ondorio horretarako egindako agertzeaz adierazitako uko egitea, kasu horretan, uko egitea Patronatuko Idazkariak egindako ziurtagiri bidez egiaztatuko da, Notarioak legezkatutako sinaduraz.

c) Heriotza, heriotza-adierazpena edo legezko absentzia, pertsona fisikoen kasuan, edo iraungitzea pertsona juridikoen kasuan.

d) Haren izendapenak beharrezko dituen eskakizunetako edozein galtzea.

e) Karguan jarduteko Estatutuetan aurreikusitako bateraezintasun nahiz legezko desgaituntzarako edozein kausatan sartzea.

f) Epailak ezindutzat deklaratzeko.

g) Patronatuak bidezko kausagatik hartutako banantze-erabakia. Ondorio horietarako, bidezko kausa dagoela joko da, Patronatuko kideak bere karguari datzekion eginbeharrak ez betetzea edota bere jardura pribatuagatik nahiz jendaurrekoagatik nabariki kaltetzen duenean Banku Fundazioaren sinesgarritasuna, izen ona edo jardura.

Atal honetan zehaztutako kasuez gain, Patronatuko kideen izendapena atzera ezina izango da.

2. Kargu-uztea Patronatuko Idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez formalizatuko da, eta hor goiko d) eta e) puntuetako balizkoetan alde aurreko txostena beharko da, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak zio emana, eta Babesletzari jakinaraziko zaio.

a) eta b) puntuetan aurreikusitako zioengatik kargua uzten duten Patronatuko kideek euren eginkizunean iraungo dute harik eta postu hutsa Estatutueta adierazten denaren arabera bete arte.

3. Patronatuko kideen ordezpena, berritzea, kargu-uztea eta kargugabetzea Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

### 3. ATALA JARDUERA ARAUBIDEA

#### 28. artikulua.- PATRONATUAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA.

Patronatua, presidentek deialdia egin ondoren, dagozkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar adina aldiz bilduko da, eta, gutxienez, hiru hilabete behin.

Patronatuko presidentearen iritziz, ezohiko osasun-inguruabarrak edo bestelako inguruabarrak gertatzen badira, Patronatuko kideak batzarrera bertaratzea nabarmen eragozten edo zailtzen dutenak, Patronatuaren bilerak bideokonferentzia bidez, telefono-konferentzia anizkoitz bidez edo beste edozein bitarteko edo prozedura telematikoren bidez egin ahal izango dira. Erabiltzen den bitarteko horrek parte hartzen dutenak nortzuk diren jakitea eta identifikatzea ahalbidetuko du, baita haien parte-hartzea, deliberazioa eta botoak denbora errealean ematea ere. Kasu horretan, bilera telematikoki egitea eragin duten aparteko inguruabarrak zeintzuk diren adierazi beharko da bilerarako deialdian, eta bilera hastean, Patronatuko idazkariak parte hartuko dutenen nortasuna aitortu beharko du, eta hala adierazi bileraren aktan, zeina Fundazioaren egoitzan egin dela ulertuko baita. Hala ere, bilera aurrez aurre egin beharko da, baldin eta Patronatuko kide gehienek bilera telematikoki egitearen aurka daudela adierazten badute, bilera-deialdia jaso eta hurrengo 48 ordu naturalen barruan.

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan nahitaez bilduko da urteko kontuak onartzeko, baita ekitaldiko azken hiru hilabeteetan, hurrengo ekitaldiko Jarduera Plana onartzeko.

Patronatuaren funtzionamendu erregimena bere barne araudian ezarritakoa izango da, eta araudi hori Patronatuak berak onartu beharko du.

#### 29. artikulua.- ERATZEA ETA AKORDIOAK HARTZEA.

1. Patronatua behar bezala eratu dela joko da saloa irekitzean kideetatik erdia gehi bat bertan badaude edo ordezkaturik badaude. Patronatuko kideek Patronatuko beste kide batzuei baino ezin laga diezaiekete euren ordezkari eta idatziz eman beharko dute eta berariaz egin beharko dute Patronatuko bilera bakoitzerako.

Deitutako bilerara Patronatuko kideetatik erdia baino gehiago joan ezean, bigarren deialdian eratu ahal izango da, eguneko gai-zerrenda berberaz, beti ere, bertaratu

diren edo ordezkatura dauden Patronatuko kideak orotarako kide kopuruaren, gutxienez, heren bat badira, eta lehenengo eta bigarren bileraren artean gutxienez, hirurogei (60) minutu tartea egon dadila.

2. Patronatuak eguneko gai-zerrendan agertzen diren giei buruz eztabaidatu eta erabakiak har ditzake, eta horiei buruz besterik ez, Patronatuaren barne erregelamenduan xedatutakoaren kalterik gabe.

3. Bertaratu diren edo ordezkatura dauden Patronatuko kideen gehiengo sinplearen aldeko botoaz hartuko ditu akordioak Patronatuak, Estatutu huetan edo aplikagarria den legedian gehiengo berezia eskatzen duten akordioen kasuan izan ezik.

Gehiengo sinplea dela ulertuko da, akordioaren aldeko botoen kopurua kontrako botoen kopurua baino altuagoa denean, abstentzioak eta boto zuriak aintzat hartu barik.

Kideetatik bi herenaren botoa behar izango da bat-egite akordioak hartzeko, egituraren edozein aldaketa egiteko eta Banku Fundazioa desagerrarazteko, baita Kutxabanken edozein inbertsio eta/edo desinbertsio egiteko ere eta Estatutu hauek aldatzeko ere bai.

Aurrekoaren kalterik gabe, aginduzko arau batek atal honetan alpatzen diren akordioak hartzeak eskatzen duen edozein betebeharrerako balu, akordioak arau horretan zehaztutako gehiengoz hartuko lirateke eta, araudian aurreikusi ez balira, gehiengo sinplez.

4. Bozketak nominalak izango dira, bertaratu diren Patronatuko kideetatik gehienek sekretua izan behar duela erabaki ezean.

5. Baliozki hartu diren akordioek Patronatuko kide guztiak behartzen dituzte, disidenteak eta ausenteak ere bai.

6. Patronatuaren deliberamenduak eta akordioak, baita ematen den dokumentazioa, isilpekoak izango dira, eta ezin konta ditzakete ez kideek, ez bileretan parte hartzen dutenek, Banku Fundazioaren Patronatuari berari ez bada. Aurreko betebeharrerak hori haustea Patronatuko kide karguan jardutetik banantzeko zio izango da, egoki gerta litezkeen beste motaren bateko erantzukizunen kalterik gabe.

### 30. artikulua.- AKTA LIBURUA.

1. Patronatuaren erabakiak aktetan jasoko dira, eta Presidenteak eta Idazkariak sinatu beharko dituzte. Aktetan ipini behar dira: bilkura bakoitzera etorritakoen zerrenda; deliberamenduen laburpen bat; bozketen modua eta emaitza, eta hartzen diren erabakien hitzez hitzezko testua.

Bilkura bakoitzaren akta bilera bera amaitutakoan nahiz hurrengo bilkuran onetsi daiteke.

2. Patronatuak hartutako erabakiak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak organo horretako Idazkariak egingo ditu, Presidentetzaren onespenez.

3. Presidenteak, berak egoki deritzonean edo gutxienez Patronatuko kide kopuruaren laurdenak eskatuta, notario bat, berak hautatua, egoteko eskatuko du, Patronatuaren bileraren akta egin dezan. Notarioaren akta Patronatuaren aktatzat joko da, beraz, Patronatuaren akten liburura transkribatu beharko da.

4. Akta onesten den egunetik aurrera izango dute indar betearazlea erabakiek, eta baliozki hartutako erabakiek Patronatuko kide guztiak behartzen dituzte disidenteak eta ez ausenteak ere bai.

### III. KAPITULUA BATZORDE ESKUORDETUZ

#### 31. artikulua.- BATZORDE IRAUNKORRA.

Patronatuak Batzorde Iraunkor bat eratuko du, bost (5) kidez osatua, eta horren parte izango dira, gutxienez, Patronatuko presidentea eta presidenteordea.

Batzorde Iraunkorraren eskumenak, edozein kasutan, aplikagarria den araudiari doituko zaizkio eta kudeaketa arrunteko egintzetara zabalduko dira eta Babesletzaren baimena behar ez duten haietara. Lege muga horiek betez gero, Patronatuak Batzorde Iraunkorrean eskuordetu ditzake eskuordetzeko modukoak diren ahalmen guztiak.

Funtzionamendu-araubidea beraren barne arautegian ezarriko da eta Patronatuak onetsia izan beharko du.

#### 32. artikulua.- AUDITORIA BATZORDEA.

Auditoria Batzordea eratuko du Patronatuak bere kideen artean hautatuta, eta gutxienez hiru (3) pertsonak eta gehienez bostek (5) osatuko dute, eta ezagutza teknikoa eta kontu-auditoria arloan fundazioei aplikagarria zaien araudiak galdatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

Auditoria Batzordearen eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea bere barne arautegian ezarritakoak izango dira, eta Patronatuak onetsi behar ditu.

Edozein kasutan ere, Auditoria Batzordeak Banku Fundazioa kontrol eta gainbegiratze eginkizunak beteko ditu, baita kontu-auditoria arloan fundazioei aplikagarria zaien arauditik eratortzen direnak ere.

#### 33. artikulua.- IZENDAPEN ETA ORDAINSARI BATZORDEA.

Izendapen eta Ordainsari Batzordea eratuko du Patronatuak bere kideen artean hautatuta, eta gutxienez hiru (3) pertsonak eta gehienez bostek (5) osatuko dute.

Izendapen eta Ordainsari Batzordearen eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea bere barne arautegian ezarritakoak izango dira, eta Patronatuak onetsi behar ditu.

34. artikulua.- INBERTSIO BATZORDEA.

Inbertsio Batzordea eratuko du Patronatuak bere kideen artean hautatuta, eta gutxienez hiru (3) pertsonak eta gehienez bostek (5) osatuko dute, eta Patronatuak galdatutako ezagutza teknikoa eta gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

Inbertsio Batzordearen eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea bere barne arautegian ezarritakoak izango dira, eta Patronatuak onetsi behar ditu.

IV. KAPITULUA  
PATRONATUAREN ETA FUNDAZIOAREN PRESIDENTETZA.  
PATRONATUAREN PRESIDENTEORDETZA

35. artikulua.- IZENDAPENA ETA KARGU UZTEA.

1. Patronatuak, agintaldi berria hasi eta hilabeteren barruan, bere kideen artean izendatuko du Patronatuko presidentea, baita presidenteordea ere.

2. Patronatuko presidentek, eta halaber presidenteordeak, hautatuak izan diren ekitaldiari dagokion epealdirako jardungo dute euren karguan, Patronatuak, epealdi hori bere bukaerara iritsi aurretik, gehiengo osoz haren kargugabetzea erabakitzearen kalterik gabe.

3. Presidente kargua nahiz presidenteorde kargua hutsik gertatuz gero, postu hori bete beharko da gehienez ere hilabeteko epean, gertaeraren egunetik hasita kontatuta.

36. artikulua.- PATRONATUAREN PRESIDENTETZA ETA PRESIDENTEORDETZA.

1. Patronatuko presidenteari honako eskuduntza hauek dagozkio:

a. Bera buru duten organoen batzarraldiak deitzea eta berorietako buru izatea, eguneko gaien zerranda proposatzea, debateak bideratzea eta aktak ikus-onestea.

b. Bera buru duten organoen erabakien ziurtapenak ontzat ematea.

c. Banku Fundazioaren eragiketen araubideari eragiten dioten aktak eta ahalordeak baimentzea.

d. Banku Fundazioa behartzen duten edo horri eragiten dioten lege-xedapenak bete daitezzen zaintzea, baita Estatutu hauetako eta bere Arautegiko manuak ere.

e. Banku Fundazioaren sinadura eramatea eta Patronatuaren akordioak betearaztea, berorietan bestelakorik ezartzen ez bada.

f. Aginte-organoen erabakiak betetzea eta betearaztea.

g. Fundazioaren urteko kontuak egitea eta proposatzea, Patronatuak onetsi ditzan, haiek jasotzen dituztela balantzea, emaitzen kontua eta oroitidazkia, baita Fundazioaren beraren urteko aurrekontua ere.

2. Patronatuko presidentea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo bere eginkizunak betetzea ezinezko egiten dion beste edozein inguruabarretan, Patronatuko presidenteordeak beteko ditu presidentearen eginkizunak.

Patronatuko presidenteordea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo bere eginkizunak betetzea ezinezko egiten dion beste edozein inguruabarretan, Patronatuak izendatzen duen Patronatuko kideak beteko ditu presidenteordearen eginkizunak, eta hori ezean, Patronatuko kide zaharrenak

4. Patronatuko presidenteak, eta halaber presidenteordeak, hautatuak izan diren ekitaldiari dagokion epealdirako jardungo dute euren karguan, Patronatuak, epealdi hori bere bukaerara iritsi aurretik, gehiengo osoz haren kargugabetzea erabakitzearen kalterik gabe.

5. Patronatuko presidente kargua nahiz presidenteorde kargua hutsik gertatuz gero, postu hori bete beharko da gehienez ere hilabeteko epean, gertaeraren egunetik hasita kontatuta.

### 37. artikulua.- FUNDAZIOAREN PRESIDENTEA.

1. Patronatuko presidenteak, Fundazioko Presidentetza ere hartuko du bere gain, eta esku hartzen duen ekitaldi guztietan berak izango du Banku Fundazioaren ordezkari gorenaren.

2. Fundazioko presidentea den aldetik, honako zerbitzu hauek emango ditu:

a. Banku Fundazioaren lidergo gorenaren bere gain hartzea, pertsona, agintari eta erakunde publiko edo pribatu guzti-guztien aurrean, eta ondorio guztietarako du Fundazioa ordezkatzeko eskumen osoa.

b. Fundazioaren estrategia korporatiboa definitzea eta proposatzea.

c. Fundazioaren eta gainerako organo betearazleen kudeaketa gainbegiratzea eta koordinatzea, erakundearen eta haren planifikazio eta kontrol sistemen funtzionamendu egokia ziurta dadin.



- d. Fundazioak Kutxabanekin dituen harremanetan solaskidetza bere gain hartzea.
- e. Kutxabanken sozietate-kapitalaren partaide diren beste banku fundazioekiko harremanetan solaskidetza bere gain hartzea.
- f. Espainiako Bankuaren, Eusko Jaurlaritzaren Babesletzaren eta gainerako aginte arautzaileen aurrean ordezkartza eta solaskidetza bere gain hartzea, eta eskumena duten erakundeen eskura jarriko du banku fundazioei aplikagarria zaien araudiaren arabera derrigorrezkoa den dokumentazioa, haien iritzia eman dezaten.
- g. Patronatuari Vital Fundazioen zuzendari exekutiboaren eta Banku Fundazioaren zuzendari nagusiaren izendapena nahiz kargugabetzea proposatzea, baita, Estatutu hauen arabera, haien eginkizunak, araubidea eta beraiei ezar dakizkiekeen baldintzak zehaztea ere.
- h. Fundazioaren organo teknikoen eta zerbitzuen jarduna eratu, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, Vital Fundazioen zuzendari exekutiboaren bitartez, eta, hala dagokionean, zuzendari nagusiaren bitartez, Patronatuaren erabakipean jartzen diren proposamenak berrikusiz, eta Fundazioaren organoek hartutako erabakiak behar bezala gauzatzeko beharrezko jarraibideak emanez.
- i. Izendapen eta Ordainsari Batzordeari proposatzea Banku Fundazioari atxikitako pertsona guztien izendapenak eta dagozkien ordainsariak, baita haiekin egin beharreko kontratuak, eta beraien banantzea, eta beraien jardueren antolaketa eta lan-araubidea ere.
- j. Banku Fundazioaren politikaren lerro orokorrak eta hark ekitaldi bakoitzean egikaritu ditzakeen jardun-egitarauak proposatzea, Estatutu hauetan ezarritako helburuak eta xedeak lortze aldera.
- k. Patronatuari eta Batzorde Iraunkorrari jakinaraztea eta bertara helaraztea, ahoz edo idatziz, Banku Fundazioak behar bezala funtziona dezan berak egoki deritzen proposamenak, mozioak eta eragiketa-egitasmoak, baita haren instalazio edo jarduera berriei buruzko egitasmoak eta lehendik daudenak handitzekoak edo eraberritzekoak ere.
- l. Banku Fundazioari dagozkion kopuruak jasotzea edo kobratzea, edozein dela zioa, bereziki edozein erakunde publikok nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak edo ekarpenak.
- m. Mota guztietako kontratuak eta hitzarmenak burutzea eta sinatzea, Fundazioaren helburuen arabera.
- n. Vital Fundazioen zuzendari exekutiboaren eta Fundazioaren zuzendari nagusiaren kudeaketa-lana gainbegiratu eta kontrolatzea.

3. Fundazioaren presidentek bere karguari dagozkion eginkizunak burutuko ditu, erabateko prestasunez, eta aurreko 2. atalean aurreikusitako zerbitzuak emategatik ordainsari egokia jasoko du, aldez aurretik Babesletzak baimena emanda eta berak eta Fundazioak izenpetuko duten kontratuan jasotako hitzartzeen arabera, eta hura Patronatuak onetsi beharko du, Izendapen eta Ordainsari Batzordeak aldez aurretik egindako txostena ikusita eta Patronatuko kideen gehiengo osoak aldeko botoa emanda.

V. KAPITULUA  
VITAL FUNDAZIOEN ZUZENDARI EXEKUTIBOA, ZUZENDARI NAGUSIA ETA  
IDAZKARIA

38. artikulua.- VITAL FUNDAZIOEN ZUZENDARI EXEKUTIBOA ETA ZUZENDARI NAGUSIA.

1. Patronatuak Vital Fundazioen zuzendari exekutibo bat izendatu dezake. Zuzendari hori Patronatuaren bileretara joango da eta hitz-eskubidea izango du, baina botorik ez. Patronatuaren batzordeen bileretara ere joango da.

Kargu hori bateraezina da Patronatuko kide izatearekin eta iraupen mugagabea izango du, Patronatuak, kasua bada, edozein unetan zuzendari horren kargu uztea erabakitzearen kalterik gabe.

Banku Fundazioaren zuzendari nagusiak izan behar ditu merkataritza-zintzotasuna eta lanbide-zintzotasuna, Legeak aurreikusi bezala, baita bere eginkizunetan jarduteko ezagutza eta esperientzia espezifikoak ere.

Banku Fundazioaren zuzendari nagusi karguan jardutea bateraezina da politikari hautatuaren kargu guztiekin, baita alderdi politikoetako, enpresa-elkarteetako nahiz sindikatu etako edozein kargu betearazlerekin ere.

Orobat, bateraezina izango da honako erakunde hauetako goi karguren bat izatearekin: Estatuaren Administrazio Orokorrekoa, autonomia-erkidegoen administrazioak eta foru eta toki administrazioetakoak, baita arlo publikoko, zuzenbide publiko zein pribatuko, erakundeetakoak ere, haiei lotuak edo haien menpekoak direnean. Bateraezintasun horrek goi kargu eta eginkizun horiek uzten diren egunaren ondorengo bi (2) urtera arte iraungo du.

Ordainsaria duen beste edozein jarduerarekin ere bateraezina izango da, Fundazioaren Patronatuak baimentzen dituenak izan ezik.

Bere izendapena formalizatzean Patronatuak ematen dizkion ahalmenak izango ditu Vital Fundazioen zuzendari exekutiboak.

2. Patronatuak zuzendari nagusia izendatuko du, Patronatuaren bileretara joango dena eta hitz-eskubidea izango duena, baina botorik ez.

Zuzendari nagusiak bateraezintasun-araubide bera izango du, baita merkataritzako eta lanbideko ohoragarritasuneko araubide bera ere, eta Patronatuak, izendapena formalizatzean, aplikagarria den araudiaren arabera, ematen dizkion ahalmenak egokituko zaizkio.

39. artikulua.- IDAZKARIA.

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, Patronatuko kidea izan zein ez; Patronatuko kidea ez bada, ahotsa izango du baina ez boto-eskubidea. Idazkariari dagokio Patronatuaren akordioen ziurtagiria egitea, eta Patronatuak bere esku uzten dizkion beste eginkizun guztiak ere bai.

Banku Fundazioaren idazkariak izan behar ditu merkataritza-zintzotasuna eta lanbide-zintzotasuna, Legeak aurreikusi bezala, baita bere eginkizunetan jarduteko ezagutza eta esperientzia espezifikoak ere, eta Patronatuko kide ez balitz, edozein kasutan ere, baldintzak bete beharko ditu eta Patronatuko kideek galdatzen zaizkien bateraezintasun zioak errespetatu beharko ditu.

Idazkaria egon ezean, Patronatuko kide gazteenak jardungo du haren eginkizunetan.

III. TITULUA  
ARAUBIDE EKONOMIKOA

40. artikulua.- FUNDAZIOAREN ONDAREA.

1. Banku Fundazioaren ondarea eraldaketa eskrituran agertzen diren ekonomikoko balora daitezkeen bere ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek osatzen dute, baita gerora eskura ditzakeenak ere, zuzkidurari atxiki ala ez.

Nolanahi ere den, ondare-zuzkidurak nahikoa izan beharko du sorrerako helburuak betetzeko, eta bere bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko ere bai.

2. Banku Fundazioak garatzen dituen jarduerengatik edo ematen dituen zerbitzuengatik lor ditzake diru-sarrerak, beti ere Banku Fundazioaren helburuen interes orokorra edo irabazi asmorik eza indargabetzen ez badute, eta onuradun izan daitezkeen pertsonen eremuaren mugatze bidegabea ekartzen ez badute.

3. Ondarearen administrazioa eta erabilpena Patronatuari dagokio, Estatutu hauetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutako eran.

41. artikulua.- FINANTZAKETA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK ETA MERKANTILAK.

1. Bere helburuak garatzeko Banku Fundazioak bere ondaretik datozen etekinetatik finantzatu da eta beste edozein motatako baliabide publiko edo pribatutik datozenetatik.

2. Banku Fundazioak zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez garatu ahal izango ditu bere sorrerako helburuekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak, enpresakoak edo merkataritzakoak edo horien osagarriak edo lagungarriak direnak, beti ere, konpetentziaren defentsaren arau erregulatzailen mende.

Gainera, beste edozein jarduera ekonomikotan esku hartu ahal izango dute, beste erakunde batzuetan duen parte hartzearen bitartez, gizarte zorretan pertsonalki erantzuten ez de kasuetan.

3. Banku Fundazioak merkataritza-sozietate batean % 20ko edo hortik gorako partaidetza balu, Babesletzari jakinarazi beharko dio Ureko Memorian. Partaidetza horrek gehiengoa duenean, Babesletzari eman beharko dio horren berri berehala.

Partaidetzaren gehiengoa duela ulertuko da kapital sozialaren edo boto eskubideen % 50etik gora duenean, eta ondorio horietarako egintza bakarrean eskuratzen diren gehiengo partaidetzak nahiz gerora eskuratzen direnak gutxiengo partaidetzak kontatuko dira, horien guztien metaketak Banku Fundazioak sozietate horretan edo horietan posizio dominantea izatea baitakar.

Merkataritza-sozietate batean duen partaidetza Banku Fundazioaren ondare garbiaren % 50etik gorakoa denean ere jakinarazi beharko dio Babesletzari.

4. Banku Fundazioak edozein tituluren truke jasoko balu, bai hasierako zuzkidura gisa, bai gerora, partaidetzaren bat 2. ataleko bigarren paragrafoak aipatzen dituen erakundetako batean, eta horietan pertsonalki erantzun beharko balu gizarte zorretan, partaidetza hori besterendu beharko du, salbu eta urtebeteko gehieneko epealdian erakunde horiek eraldatu eta sortzen diren berrietan bazkidearen erantzukizuna mugatuta geratu.

#### 42. artikulua.- DOHAINIK ESKURATUTAKO ONDASUNAK.

1. Banku Fundazioak jaraunspenak onartzea inbentarioaren onurarako egina ulertuko da. Patronatuko kideak izango dira inbentarioaren mozkin galeraren erantzuleak Banku Fundazioaren aurrean, Kode Zibilaren 1.024 artikulua eta, kasaren arabera, Euskadiko foru zuzenbide zibilak, aipatzen dituen egintzengatik.

2. Kargak dituzten legatuak edo kostu bidezko edo ordainezko dohaintzak onartzea eta kargarik gabeko jaraunspenei, dohaintzei edo legatuei uko egitea Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Patronatuak hurrengo 10 laneguneko epean, eta Babesletzak dagokion erantzukizun ekintzak egikari ditzake Patronatuko kideen aurka, bere egintzak Banku Fundazioarako kaltegarriak badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakoaren arabera.

3. Jakinarazpenarekin batera jaraunspenaren edo dohaintzaren onarpena adierazten duen Patronatuaren akordioaren ziurtagiria aurkeztu beharko zaio Babesletzari, baita akordio hori gauzatzen duen eskritura publikoa ere.

43. artikulua.- FUNDAZIOAREN BALIABIDEEN EZARPENA.

Patronatuak zehaztuko du baliabideen Banku Fundazioaren sorrerako helburuak betetzera aplikatzeko irizpideak, euren errendimendua eta erabilgarritasuna ahalik eta handiena izan dadila saiatuz, eta, edozein kasutan, aplikagarriak diren indarrean dauden araudi-xedapenak errespetatuz.

44. artikulua.- FUNDAZIOAREN ONDAREAREN ZAINTZA.

Banku Fundazioaren ondare autonomoa osatzen duten ondasunen zaintza ziurtatzeko, hurrengo arau hauek beteko dira:

a) Banku Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, dagozkien erregistro publikoetan inskribatuko dira Banku Fundazioaren izenean.

b) Balore higigarriak eta funts publikoak Patronatuak erabakitzen duen erakundean gordailutuko dira Banku Fundazioaren izenean.

c) Gainerako ondasun higigarriak, jabetza-agiriak, gordailu-ordezlagiriak eta jabetza, edukitzea, erabilpena, gozamina, edo eta Banku Fundazioa bera titular den beste edozein eskubide egiaztatzen dituzten beste edozein ziurtagiri, Patronatuak berak zainduko ditu, edo bestela, hark eskuordetzen duen pertsonak.

d) Ondarearen Erregistro Liburu batean Banku Fundazioaren ondasun guztien inbentarioa egingo da; hura Patronatuaren ardurapean egongo da eta bertan haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko inguruabarrak agertuko dira.

IV. TITULUA  
KONTABILITATEA, BALANTZEA ETA EMAITZAK

45. artikulua.- EKITALDI EKONOMIKOA.

Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango, egutegi-urtearekin bat. Urteko ekitaldi ekonomikoa ixtean, urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena eratuko dira.

46. artikulua.- KONTABILITATE ARAUBIDEA.

1. Banku Fundazioak kontabilitate ordenatua eraman beharko du eta bere jarduerari egokitua, egindako eragiketen jarraipen kronologikoa ahalbidetuko duena, indarrean dagoen kontabilitate-araudiaren arabera.

Urteko Kontuek unitate bat eratzen dute, argi eginak izan behar dute eta Banku Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala islatu behar dute, eta hauek dituzte osagai: Balantzea, Emaitzen Kontua, memoria, fundazioetarako Kontabilitate Planak ezartzen dituen gainerako dokumentuak. Erantzukizun-aitorpenei eta horien objektu diren egintzen edo kontratuen perfekzioari buruzko informazioa Memoriaren gutxieneko edukiaren atal izan behar dute.

2. Patronatuko presidentek, edo Patronatuak hartu duen akordioaren arabera dagokion pertsonak, aurkeztuko ditu Urteko Kontuak, eta aipatutako aginte-organoak onetsi beharko ditu, ekitaldia itxi denetik sei hilabeteko gehieneko epealdian, fundazioei aplikagarria zaien araudiaren arabera.

3. Urteko Kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaletan, Banku Fundazioaren Patronatuak Urteko Kontuak behar bezala sinatuta helaraziko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, bertan gordailutu daitezzen, eta indarrean dagoen araudian xedatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

## V. TITULUA DERRIGORREZKO DOKUMENTUAK

### 47. artikulua.- JARDUERA PLANA.

1. Patronatuak egin, onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari igorriko dio, aztertu dezan, ekitaldi bakoitzaren azken hiru hilabeteen barruan, jarduera plan orekatu bat. Plan horretan helburuak geratuko dira islatuta, hurrengo ekitaldian egiteko aurreikusi diren jarduerak, kalkulatu diren diru sarrera eta irteeren aurreikuspena eta jarduera plan horren azalpen-memoria bat. Dokumentazio horrekin batera jarduera planaren Patronatuaren onespeneraren ziurtagiria ere igorriko da.

2. Beste alde batetik, Patronatuak ziurtagiri bat bete eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari igorriko dio, Urteko Kontuekin batera. Ziurtagiri horretan Banku Fundazioari buruzko erregistro-datu eguneratuak agertuko dira.

### 48. artikulua.- ERAKUNDE GOBERNUAREN URTEKO TXOSTENA.

Banku Fundazioak erakunde-gobernu txosten bat jakinaraziko du jendaurrean urtero; haren edukia, egitura eta argitaratze-eskakizunak gaiari buruz indarrean dagoen araudiak xedatzen duenari doituko zaizkio.

Erakunde Gobernuaren Urteko Txostena Babesletzari jakinaraziko zaio, eta haren onspena jasota duen ziurtagiriaren kopia atxikiko zaio.

### 49. artikulua.- DERRIGORREZKO LIBURUAK.

Banku Fundazioak akta-liburua izan beharko du. Akta-liburu horretan Banku Fundazioaren Patronatuaren eta gainerako organo kolegiatuen bileren aktak jasoko dira.

Akta horiek idazkariaren sinaduraz eta presidentearen oniritziarekin egiaztatuko dira.

Era berean, Banku Fundazioak Eguneroko Liburua eta Inbentario eta Urteko Kontuen Liburua ere izan beharko ditu. Horien guztien edukia eta egitura merkataritza legedian xedatutakora egokituko dira.

## VI. TITULUA ESTATUTUAK ALDATZEA

### 50. artikulua.- ESTATUTUAK ALDATZEA.

Patronatuak Estatutu hauek aldatzea erabaki dezake, Banku Fundazioaren interesei komeni bazaie, beti ere, sorrerako helburuari eusten bazaio.

Erabakiak arrazoitua izan beharko du eta Patronatuko kideen hiru laurdeneko gehiengoz hartu behar da, nolana ere, Patronatuak onetsi duenez, estatutuen aldaketak sorrerako helburua errespetatzen duela ulertuko da, beraz, ez du Babesletzaren onarpena izan beharko erregistroan inskribatu baino lehen.

Estatutuak aldatzeko akordioa eskritura publikoan gauzatu beharko da eta Fundazioen Erregistroan inskribatu onartu denetik sei hilabeteko epe barruan. Inskripzioak eratze-izaera izango du, akordioa formalki hartu zeneko datara arteko atzera eraginez.

## VII. TITULUA BAT EGITEA, IRAUNGITZEA ETA LIKIDAZIOA

### 51. artikulua.- BAT EGITEA.

Patronatuak Banku Fundazioaren beste fundazio batekiko bat egitea erabaki dezake, beti ere, sorrerako helburua errespetatzen bada, parte hartzen duten fundazioen Patronatuak alde aurretik akordio batera iritsita, eta akordio hori Babesletzari jakinarazita.

Bat egiteak sorrerako helburuak hobeto betetzeko komenigarritasunari erantzungo dio eta bi era hauetara egin ahal izango da: bai lehendik zegoen fundazio batek beste fundazio bat edo gehiago iritsita, eta ondorengotza unibertsalaz hartuko ditu iritsi dituen fundazioen ondareak eta iritsiak likidazio barik iraungiko dira; bai fundazio berri bat eratuta, bat egiten duten fundazioak likidazio barik iraungita eta horien ondareak blokeak transmitituta fundazio berrira, berri horrek ondorengotza unibertsalaz eskuratuko baititu.

Bat egite erabakia parte hartzen duten fundazioen Patronatuetoako kideen hiru laurdeneko gehiengoz hartu beharko da, edozein kasutan, Banku Fundazioaren Erakunde Sortzaileen adostasuna eta Babesletzaren onespina edukita, eta eskritura publikoz formalizatu beharko da eta Fundazioen Erregistroan inskribatu.

52. artikulua.- IRAUNGITZEA: ARRAZOIAK ETA PROZEDURA.

1. Banku Fundazioa honako kasu hauetan iraungiko da:

a) Patronatuak hala erabakitzen duenean, bere kideen hiru laurdeneko aldeko botoaz.

b) Sorrerako helburua betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean Estatutuen aldaketari, bate egiteari eta banantzeari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.

c) Bat egiteko prozesu batetik edo Banku Fundazioa bera berregituratzetik hala gertatzen denean.

d) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

2. Aurreko ataleko a), b) eta c) epigrafeetan agertzen diren baldintzetan, Banku Fundazioaren iraungitzeak Babesletzak berretsitako Patronatuaren akordioa eskatuko dute. Patronatuaren akordiorik ez balego, edo Babesletzak berretsiko ez balu, Banku Fundazioaren iraungitzea arrazoitutako ebazpen judiziala eskatuko du, Babesletzak edo Patronatuak premiatua, kasuan kasukoa.

Aurreko ataleko d) epigrafearen kasuan, ebazpen judizial arrazoitua eskatuko da.

3. Iraungitze akordioa edo, kasuaren arabera, ebazpen judiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

53. artikulua.- LIKIDAZIOA.

1. Banku Fundazioaren iraungitzeak, bere jatorria bat egite prozedura bat den kasuetan izan ezik, edo iraungitze arrazoiak betetzeak, zehaztuko di likidazio-prozedura irekitzea. Likidazio-prozedura hori Patronatuak burutuko du edo aginte organo horrek izendatutako likidazio Batzorde batek, Babesletzaren kontrolpean, besterik zehazten duen arrazoitutako ebazpen judizial bat ez badago. Banku Fundazioak bere izaera juridikoa gordeko du, aipatutako prozesu hori bukatu arte, eta epealdi horretan Banku Fundazioak «likidazioan» dioen identifikazioa eraman behar du.

2. Likidazio-prozesua likidazio batzordea izendatzeko Patronatuaren akordioaz irekiko da



3. Behin batzorde hori izendatuta eta karguak onartuta, Patronatuak bere funtzio guztiak utziko ditu. Likidazio batzordea eratzea ezinezkoa balitz, Patronatua izango litzateke likidazio prozesuan galdatutako betebeharrak betetzeko beharrezko erabakiak hartzeko arduraduna.

4. Likidazio ekintzei dagokienez, likidazio batzordea osatzen duten pertsonak Banku Fundazioaren Patronatuko kideen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak izango dituzte. Likidazio batzordeak berehala eman beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari bere eragiketen berri, eta, era berean, likidazio eragiketei buruzko txosten bat aurkeztu beharko du. Babesletza horrek prozesuari buruzko aldizkako informazioa jaso beharko du likidazio batzordetik eta emandako dokumentazioari buruzko informazio gehigarria ere, eta epailearen aurrean aurkaratu beharko ditu ordenamenduaren edo estatutuen kontrako deritzen likidazio ekintzak, baina lehenengo zuzentzeko eskatu beharko luke, aukera hori dagokeen kasuetan.

5. Banku Fundazioa hiru urteko epealdian likidatu beharko da. Epealdi hori igarota, babesletzak aginte judizialaren esku hartzea eska dezake. Likidazio prozesuan ezin daiteke likidaziorako, kredituak kobratzeko, zorrak kitatzeko edo egikaritzeko dauden egintzak betetzeko beharrezkoak diren baino obligazio gehiago hartu. Beharrezkoa balitz, Babesletzak fundazioa bere kontrolpean har dezake, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Likidazio eragiketak eskritura publikoan gauzatuko dira eta akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da, Babesletzak alde aurretik txosten bat eginda. Likidazio batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa jo beharko du eta likidazio-balantze onetsia aurkeztu eta Babesletzaren berrespena, baita likidazio eragiketak gauzatuta islatzen dituzten dokumentuen kopia ere. Egikaritu gabe dauden eragiketak zeintzuk diren ere jakin behar da eta nola gauzatuko diren. Erregelamendu bidez, Erregistroan aurkeztu behar diren beharrezko dokumentuak eta baldintzak aldatu ahal izango dira.

7. Likidazio onartuta, babesletzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa igorriko du, bertan dauden Banku Fundazioari buruzko erregistro-idazpenak eta inskripzioa deuseztatuz.

## VIII. TITULUA FUNDAZIOEN BABESLETZA ETA ERREGISTROA

### 54. artikulua.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREGISTROA.

Fundazio honen eraketa, bai halaber, legez hala behar duten egintza edo negozio juridiko guztiak, indarreko araudiaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

55. artikulua.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN BABESLETZA.

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren tutoretza, aholkularitza eta kontrolpean dago, indarrean dauden legeetan xedatzen denaren arabera.

56. artikulua.- ZEHAPEN ARAUBIDEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean aurreikusitako zehapen araubideari lotuta dago Fundazioa.

**Testu hau “Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioaren” Patronatuaren** aho bateko akordioaz onetsi zen, 2018ko maiatzaren 23an egindako bileran eta aho batez aldatu zen 2019ko azaroaren 28an, 2020ko maiatzaren 14an, 2020ko azaroaren 26an, eta 2021eko ekainaren 24an egindako bileretan.